

Kobanê, izan zitekeen mundua

Azken asteotan asko idatzi da Kobanêri buruz. Beharbada sarraskiari buruzko informazio gehiena kontatua dago. Baina beranduegi jaio da Kobanê mundura, Rojavako itxaropenaren irla ttipi hau berandu "deskubritu" dela dirudi. Zer gertatu da han, Estatu Islamiarreko fundamentalisten setioa hasi aurretik?

| NEREA EIZAGIRRE TELLERIA |

2011N SIRIAKO Bashar Al-Asaden gobernu autoritarioaren aurkako altxamendua hastearekin (Siriako Udaberria) Siriako kurduak oposizioarekin elkarlanean aritu ziren hasiera batean. Berehala argitu zen orde, oposizioek ere ez zutela kurduen identitate nazionala onartuko. Horrela, kurduak Siriako gerra zibilaren erdian, euren bidea hartzea erabaki, eta gobernagarritasun gabezia haren aurrean, lurralde kurduaren autonomia aldarrikatu zuten. Halaxe jaio zen Rojava (kurdueraz mendebalde esan nahi du, lehen Siriako gobernupean zen lurralde kurdua Kurdistan osoaren Mendebalde delako) eta 2012ko uztailaren 19ko eguna aldarrikatzen dute bertan jazotako iraultza sozialaren hasiera.

Uztailaren 19 hartatik aurrera, YPG (Herri Babeserako miliziak) eta YPJ (emakumez soilik osatuak) milizietako kideek defendatzen dute zonaldea. Bestalde, PYDko (Batasun Demokratikoko Alderdia) kideek hartu dute bere gain lurraldearen antolakuntza, eta kurduen buruzagi Abdullah Öcalanek proposatutako Konfederalismo Demokratikoaren printzipioei jarraiki, demokrazia zuzenean oinarritutako prozesu eraikitzailea jarri dute martxan. Horrela, gradualki gertatu den arren, Rojavako eremuan prozesu iraultzailea jazo da: botere zuzena herri eta auzoetako asanbladetaraino eraman, ekonomia komunitarioan oinarritutako sistema abiatu,

kooperatibak eraiki, kurdueraz eta balore askatzaileetan oinarritutako hezkuntza sistema martxan jarri, emakumeen ahalduntzea bultzatu duten talde feministak hedatu, kurdueraz gain lurraldeko gutxiengo erlijioso eta etnia ororen elkarbizitza ahalbidetu, eta abar. Eszeptikoren batek, "ez da posible, gutxiagorako izango da, gutxi entzun baitugu hartaz!" pentsatuko du. Bada bai, mendebaldekoon begiak beste norabait begira zeudela, iraultza egin dute Kurdistango zatitxo horretan.

Rojavako iraultza feminista da zeharo. Iraultza gehiegi egin dira historian emakumeak gutxiegi askatuz, eta hara non herrialde arabiar batean gertatu den; hurrengoan beloari buruz hitz egitean bi aldiz pentsatuko ote dugu?

Estatu Islamiarraren setioa

2012ko uztailaren 19az geroztik, Estatu Islamiarrak (EI) etengabe egin dio eraso Rojavari. Kurduak aspaldi hasi ziren Mendebaldeari ardura eta laguntza eskatzen, baina isiltasuna soilik itzuli zaie bueltan. Irailaren 15az geroztik, EIk Kobanêko hiria erabat setiatu du. Lerrook idazterako, Eiko kideek hirian sartzea lortu dute, bidean 662tik gora hildako, 200.000 erre-

fuxiatutik gora, ehunka emakume bortxatu, eta finean gizadiaren aurkako sarraskia eraginez, Siriako Giza Eskubideen Behatokiaren datuen arabera. YPG eta YPJko milizianoek borroka egitea erabaki dute. Baina esan beharra dago, miliziek ez daudela "gerrillari presatuek" soilik osatuak. Hasiera batean, Qandileko mendietatik jaitzitako gerrillariak osatzen bazituzten ere, eraso hastearekin herritarrek hartu dituzte armak. Adin guztietakoak daude lehen lerroan,

baina batik bat emakumeen parte-hartzea da azpimarragarria.

Konfederalismo Demokratikoa feminismoaren printzipioetan oinarritua dago eta Kurdistango emakumeen mugimenduak jada, bide luzea ibilia du. Horretxegatik, nahiz eta Mendebaldearen begietan asteotan iritsi zaizkigun emakume gerrillari hauen argazkiak berrikuntza iruditu – ia feti-

txe bilakatzeraino –, emakume kurduak hamarkadak daramatzate euren herriagatik, eta genero askapenagatik borrokan. Rojavako iraultza feminista da zeharo, eta hau azpimarratzekoa da, izan ere, iraultza gehiegi egin da historian emakumeak gutxiegi askatuz. Hara non eta, herrialde arabiar batean gertatu den; hurrengoan beloari buruz hitz egiterakoan, bi aldiz pentsatuko ote dugu?



YPJko kideak, emakumeez osatutako miliziak. Askapen sozial, genero eta nazio ikuspegikoa gertatu da Rojavan, Mendebaldeko Kurdistanen.

Mendebaldearen ardura(gabezia)

Jakina da Eİren sorreran Mendebaldeko potentziek izan duten eragina, baina behin arazoaren erantzule izanagatik, apenas esku hartu dute ondorengo kaosa geldiarazteko. Turkiako gobernuak EI aktiboki eta kontzienteki laguntzen dihardu: tunel batzuk eraiki ditu Eİko kide zaurituak erietxe turkiarretan sendatzeko eta armez hornitu dituztela frogatuta geratu da. Herritar kurduak? Muga itxi diete, errefuxiatuak Turkiara sartzen ez uzteko, eta bide batez, Kobanêra borrokara igaro nahi duten kurduak bidea eragozteko. Horrez gain, aste honetan Europa osora zabalduta dira elkartasun ekimenak, eta Kurdistanen eta Turkian egindako mobilizazioetan 40tik gora lagun kurdu hil dituzte indar armatu turkiarrek.

Turkia kurduak hiltzen ikustea ez da kontu berria, baina gogora dezagun, PKK-rekin hitzartutako bake prozesuaren parte dela 2013tik, eta bestalde, Turkia NATOk kide dela. Firatnews-en arabera, Turkia-

ko 92 presondegitan sakabanatuta dauden 4.000 preso politiko inguruk gose grebari ekin zioten joan den astean, gobernu turkiararen eta Eİren arteko elkarlana salatu asmoz.

Rojavako kasuan ez bezala, abuztuan Sinjar mendian (Irakeko Kurdistan), Estatu Islamiarraren ofentsibaren aurrean, AEBek eta NATOk beste zenbait herrialdeek esku hartu zuten eta bertako *pexmergak* (Irakeko

Irakeko kurdu neoliberalak lagundu, eta aldiz, burujabetza praktikatzaren duten Siriako kurduak hiltzen utzi ditu Mendebaldeak

gobernu kurduaren indar armatuak) armaz hornitu zituzten. Irakeko kurduak laguntza zuzena eman dio Mendebaldeak, “horiek bakearen alde” ari zirela argudiatuz. Aldiz, Siriako kurduak PKK-rekin lotura ideologi-

koa dutenak, terroristak dira Mendebaldearen begietan. Irakeko kurdu neoliberalak lagundu, eta aldiz, burujabetza praktikatzaren duten Siriako kurduak hiltzen utzi ditu. Genozidioa eta sarraski humanitarioa eragiteaz gain, proiektu politiko bat ere erailtzen ari dira Kobanê

Analista politiko zein agintariek Kobanê astebete baino gutxiagoan eroriko zela aurreikusten zuten. Hilabetea igaro da eta erresistentziak borrokan dirau. Azken egunotan gainera, EI atzera eginarazi dute milizia kurduak, euren kemenari eta koalizio internazionalak jaurtitako bonbei esker. Logika eta aurreikuspen guztiak hausten ari dira kurduak. Duintasunak aterperik badu, emakume eta gizon gerrillari horien begietan bizi da. Kobanê beste

mundu baten itxaropena izan zitekeen, baina tamalez mundu hau izatera kondenatzen ari dira. ■

